

Garrantzizkoak dira, bere etorkizuna azkar susmatu zuen gazte onen olerkiak, batez ere gogoaren aldetik. Eta euskerraturik OLERTI'ren irakurle ta lankideeri ezagutzera eman nai nituzke.

OTSALAR euskeratzaillak.)

Pakearen billa zebillena naiz ta bere begietan galtzairuzko ortzak arkitu dituana.

Itzak ikumenez arkitzen zituana

eta egun batean, bere eskuan, azkon bat ikusi

Bere orma tinkoen ondoan luperia [zuana. ikusten duan egillea natzaizute.

Egunen batean ikusten ba'nauzute gexo edo

ez burlarik egin nigan, ezta katerik jarri [ero

aizeari jarraitzen diotanean [ere;

ez nazazutela lurreratu,

naiz nere arpegiak liburu errea

ta uri sakaildua iduri.

ZAINTZALLEAREN BI EGINBIDE

I

EGUERDIKOA

Larradi gurenean, belar orien tartean,
kirkerrak bere ego-azal auskorrak zarratzen
dituan lekuan, beti lurraren atzaparrak estu-
[tzen

duen itxasoa entzunaz gelditzen naiz.

Udarako eguerdi gozakaitz ontan

bere ago berritsua mutu duenengan eta

illobi estu batean kukurturikoekin pentsatzen
[dut.

Negar dagiet begiak lurrez beterik ditueneri.

II

GAU ERDIKOA

Una guzietan eskeñi ziranak,
 maitale asetua bezela, denbora ez titsu izate-
 [raño ;
 oin arindun gizon garbiak, begi zorrotzdun
 [zarrak
 —azkatasuna bide dalarik, iraunkor beren
 [izarrak—
 laguntzen didate, begiratzen ba'dut uri uts
 [au.
 Lilluraturik nauka bizien gordintasun arri-
 [garri onek.
 Lilluraturik ildakoen gorpuzki ritmoak.
 Lilluratzen naute lili-osto ta auts usaia
 duan gaura sartu ziranak.

POZA'ri ODA

(Schiller)

O Poz! Ez eresi itunik
 geigo, abots pozgarri
 ta alaiagorik baizik!

Poza!

Poza! Jainko txinpart eder,

Eliseo'ko alaba,

Suz ordiak sartzen gaitun

zerutar gaindegira.

Ire lilurak berriz din

lotu bizkerak etena.

Gizon oro anai gatxin

ire egak ikututa.

Lagunen-lagun irauten

Zoria dunak lortu,

ta andre laztan bat maitatzen